

KOSTUAK

Jakina den moduan, badaude enpresa batzuk haien produktuak prezio merkean saltzeagatik ezagunak bilakatu direnak mundu mailan, esaterako, Shein edo Amazon denda digitalak, eta modu berean, badaude beste enpresa batzuk haien prezio garestiengatik bihurtu direnak famatuak, hala nola, Louis Vuitton, Versace, Gucci edo Chanel luxuzko markak.

Gure enpresaren helburua tanpoiak erabiltzen dituen ororen osasuna zaintzea denez, ulertu daitekeen moduan, gure enpresa eta produktuak hauen kalitatearengatik nabarmenduko dira. Tanpoien kalitatea bermatzeko, produktua ekoizteko lehengaiak ere kalitate honekoak izan beharko direnez, gure tanpoiek ez dira izango merkeenak. Hala eta guztiz ere, gure produktua, ahal dugun neurrian, merke salduko dugu, tanpoiak behar dituen orok erosteko aukera izan dezan. Gure enpresak zein produktuen kostuari dagokienez, bi kostu mota edukiko ditugu: kostu aldakorrak eta kostu finkoak.

Kostu aldakorrei dagokienez, tanpoiak ekoizterako orduak izango dugun produkzioaren araberakoak diren kostuak dira, beraz lehengaiak. *Ilen* enpresarekin adostutako moduan, esponja bakoitzeko 8€ ordaindu beharko ditugu, beraz, 300 esponjako 2.400€. Bestalde, *Berda Llorens* enpresari, hilo metro bakoitzeko 2€ ordaindu beharko diogu, hortaz, 30 hilo metrorentzako 60€. Gainera, *Monouso* enpresarekin hitz egin ostean, aplikadore bakoitzeko 3€ko kostua izango dugula zehaztu dugu, beraz, 3.500 aplikadoreentzako, 10.500€ ordaindu beharko ditugu. Azkenik, Endesa enpresarekin dugu akordio bat gure lokalerako argia eta gasa eduki ahal izateko; horren kostua 52€-koa izango da.

Kostu finkoak, izenak dioen bezala, ordaindu beharko ditugun prezio egonkorrak dira. Garraioak ditugu kostu finkoetako bat, gure produktuak fabriketatik lokalera edo stand-era garraiatzeko erabiliko ditugunak, hain zuzen ere, hiru kamioi. Kamioi hauek enpresa bati alokatuak egongo direnez, 125€ko kostua izango dute gure enpresarentzat, beraz, produktuen garraioa burutzeko, hilabetero 375€ko kostua izango dugu. Ondoren, langileen soldatak edukiko ditugu. Lehenengo hilabetean, lau sortzaileak izango gara langile bakarrak, beraz, lau soldata ordaindu beharko dira. Soldata bakoitza 2250€-koa izango da eta enpresa garatuz doan heinean langile gehiago kontratatzeko ideia dugu; hortaz, hasiera batean, langileen soldatan inbertitu beharreko dirua 9000€-koa izango da. Jarraitzeko, stand-a dugu 12.500€ko kostua suposatuko diguna, baina gure produktuari buruzko informazioa

zabaltzeko aukera emango diguna. Horrez gain, gure produktua sortu ahal izateko fabrika bat beharko dugu. Honek 1050€-ko kostua suposatuko digu eta lehen aipatutako kamioien bidez han egindako produktuak dendetara eramango ditugu. Azkenik packing-a dugu. Fabrikatik ateratzen diren produktu guztien packing-erako enpresa batekin egingo dugu lan, eta horretarako 150€ ordaindu beharko ditugu.

Gure produktua eta enpresa aurrera eramateko behar diren alderdi guztiak kontuan harturik, gure lehenengo hilabeteko kostu totala 36.087€-koa izango da.

Lehenengo hilabeteko kostuen taula:

	PRODUKTUA	PREZIOA	KANTITATEA	PREZIOA GUZTIRA
KOSTU ALDAKORRA	Ilen	8€/esponja	300	2.400€
	Berda Llorens	2€/metro hariko	30	60€
	Monouso	3€/ aplikadoreko	3.500	10.500€
	Endesa	52€/ hilabeteko	1	52€
KOSTU FINKOAK	Garraioa	125€/ kamioiko	3	375€
	Soldatak	2.250€/ langileko	4	9.000€
	Stand-a	12.500€	1	12.500€
	Fabrika	1.050€	1	1.050€
	Packaging	150€/ hilabeteko	1	150€
GUZTIRA:				36.087€